

Haurrak eta Nerabeak Indarkeriaren aurrean Babesteko Lege Organikoa (LOPIVI)

Urtea bete berri duen Haurrak eta Nerabeak Indarkeriaren aurrean Babesteko Lege Organikoa (LOPIVI) aldaketa ugari ekarri ditu eta, horiekin batera, haur eta nerabeen babes handiagoa eta hobea. Ikuspegi integrala du, eta indarkeria mota guztien aurrean jarduten da fase guztietan (sentsibilizazioa, prebentzioa, detekzioa, babesa eta biktimen erreparazioa), ikuspegi prebentibo eta pedagogiko argiarekin, guztiok konponbidearen parte bihurtuz.

Legeak atal bat eskaintzen dio, kirolarekin batera, aisia eta astialdiaren arloari, baina aldaketa sakon eta iraunkor baterako, beharrezkoa da adinez txikiekin lan egiten dugun pertsona, administrazio eta erakundeok lege osoa ezagutu eta ulertzea. Ezinbestekoa da indarkeria prebenitzeko eta administrazio-maila guztietan legean jasotako mekanismo guztiak martxan jarri ahal izateko. Horregatik, laburpen honetan LOPIVIren atal guztietako alderdi nagusiak jasotzen ahalegindu gara.

INDARKERIARI BURUZKO DATU OROKOR BATZUK

- Haur eta nerabeen kontrako indarkeriaren datuak izugarriak dira. Gizarte Gaietarako Ministerioaren arabera, 2020an jarritako 35.778 salaketatan biktima haurra edo nerabea zen. Horietatik, 5.685 sexu-askatasunaren kontrako delituengatik izan ziren, gehienak nesken kontrakoak.
- Azken urteotan, adinez txikikoen indarkeria mota guztiak % 298,8 igo dira.
- Kasu guztien heren batean lesio fisikoak, kolpeak, zaplaztekoak, muturrekoak, ostikoak, etab. izaten dira mehatxu larriez, hertsapenez eta garrasiez gain. Eta % 6,7k traumatismoak, hezur hautsiak eta kontusio handiak erakusten ditu.
- Bestalde, indarkeria-kasu guztien % 70,4 norberaren etxean edo familia-inguruneko etxeetan gertatzen dira.
- Azkenik, adinez txikiei egindako sexu-abusuak % 300,4 igo dira, azken hamarkadan, hau da, lau aldiz gehiago. Salatutakoak, ordea, horien % 10,6 bakarrik izan dira. Gainera, horien artetik % 18,2 artxibatu egin ziren frogarik ez zegoelako. Eta zoritxarrez, inguruko erantzuna ez da izaten babestea: % 37,8 kasutan gertatutakoa ukatu egin dute, % 31,1en erasotzailea justifikatu edo babestu dute, %23,9tan neglijentzia izan da edo ez da erreakzionatu, eta % 7,2tan biktimari egotzi diote errua.

LOPIVI: GAKO NAGUSIAK

I. BABES INTEGRALA

Legeak barnean hartzen ditu indarkeriari dagozkion puntu guztiak: sentsibilizaziotik hasita, prebentzioa eta identifikazioa, eta baita kaltearen tratamendua eta erreparazioa ere. Eredu desberdinetan ezartzen ditu neurriak (familia, hezkuntza, kirola eta aisialdi, arlo digitala, esku-hartze soziala, babes-zentroak, osasuna eta polizia). Gainera, estrategia bat sortzea aurreikusten da administrazio desberdinek martxan jarri beharko dituzten jarduerak koordinatzeko.

Halaber, bere izaera integrala behin eta berriz azpimarratzen duen ideia batean ere nabaritzen da: indarkeria geldiarazteko, behar-beharrezkoa da guztiok parte hartzea, baita haur eta nerabeek ere. Horregatik, beren burua babesteko baliabideak emango dizkien heziketa eskainiko zaie. Gainera, legeak dei egiten die haurraren babesa bermatzera behartuta dauden subjektu guztiei ere: ez soilik familiari eta Estatu osoari (legegileak, administrazioak eta epaileak), baita ere haurrekin eta haurrentzat lan egiten duten profesionalei, gizarte zibilari eta enpresa-sektoreari.

II. ESKUBIDEEN IKUSPEGIA

Giza eskubideen ikuspegian oinarritutako babes-eredu bat da:

- Botere publikoek juridikoki eska daitezkeen betebeharrak dituzte, izaera unibertsaleko nazioarteko estandarren arabera arauz aitortuta dauden eskubideen gozamena bermatzeko. Eta beren jardueraren berri eman behar dute, beren ekintzek eragina izango baitute haurren eta nerabeen bizitzan.
- Haurrek eta nerabeek eskubidea dute bizitza publikoan eta haiei zuzenean edo zeharka eragin diezaieketen erabaki guztietan parte hartzeko. Ez dira egoera politikoaren eta baliabideen eskuragarritasunaren arabera erabakitako laguntzen hartzaile hutsak.

III. INDARKERIAREN DEFINIZIOA

Lege honen ondorioetarako, indarkeria da adinez txikiei beren eskubideak eta ongizatea galarazten dizkien ekintza, omisio edo tratu arduragabe oro, haien garapen fisikoa, psikikoa edo soziala mehatxatzen edo oztopatzen duena, egiteko modua eta bitartekoa edozein dela ere, informazioaren eta komunikazioaren teknologien bidez egindakoa barne, batez ere digitala.

Nolanahi ere, indarkeriatzat hartuko da familia-eremuan edozein jokabide bortitz izatea / mutilazio genitala / sexu-eraso eta -abusuak / tratu txar fisikoa, psikologikoa edo emozionala /

datu pribatuen zabalkunde publikoa / axolagabekeria edo tratu arduragabea / zigor fisikoak, umiliagarriak edo iraingarriak / ustelkeria / esplotazioa / sexu-estortsioa / baimenik gabeko edo eskatu gabeo pornografia / eskola-jazarpena, sexu-jazarpena eta ziberjazarpena / mehatxuak, irainak eta kalumniak / genero-indarkeria / haurren ezkontza / gizakien salerosketa edozein helbururekin.

IV. TRATU ONAREN PRINTZIPIOA

Legeak tratu onaren printzipioa ezartzen du, honela definituta:

“Lege honen ondorioetarako, tratu ona da haurren eta nerabeen oinarritzko eskubideak errespetatuz honako printzipio hauek aktiboki sustatzen dituenak: elkarrekiko errespetua, gizakiaren duintasuna, bizikidetzaren demokratikoa, gatazka modu baketsuan konpontzea, legeak berdinean babesteko eskubidea, aukera-berdintasuna eta haurren eta nerabeen diskriminazio-debekua.”

V. JARDUERA-MAILAK ETA -EREMUAK

Lege honek berritasun nagusia bertan identifikatzen diren jarduerak eta -eremuak dira. Horietan haurrek indarkeriarik ez jasateko eta ondo tratatua izateko duen eskubidea bermatu behar da. Eta bien arteko konbinazioan zehazten dira hartu beharreko neurriak eta horien arduradunak.

JARDUERA-MAILAK:

1.- Sentsibilizazioa

LOPIViren helburuetako bat da “gizarte osoa sentsibilizatu eta kontzientziatzeko neurriak bermatzea, haur eta nerabeen kontrako indarkeria-mota guztiak arbuia eta deuseztatzea. Halaber, indartu egiten du haur edo nerabeen kontrako indarkeria-zantzuak daudela uste badugu horiek salatzeko betebeharra.

2.- Prebentzioa

Eskubideen urraketen prebentzioak lehentasuna izan behar du biktimen arretaren eta erreparazioaren aurrean (nahiz eta hori egiteari utzi behar ez).

Prebentzioa egingo da haurrekin lan egiten duten profesionalak espezializatuz; familiei lagunduz; eta haurrek beraiek parte hartuz. Hauei prestakuntza eskainiko zaie gai izan daitezkeen indarkeria-egoerak alde aurretik antzemateko eta egoera horien aurrean behar bezala erreakzionatzeko.

3.- Detekzio goiztiarra

Haur eta nerabeekin lan egiten duten profesionalen diziplina anitzeko eta etengabeko prestakuntzaren bidez, indarkeriaren detekzio goiztiarrak aukera ematen du egoera larriagotu ez dadin esku hartzeko.

4.- Esparru zibila, penala, prozesala eta administratiboa indartzea

Horrela, biktimen babes hobea lortu nahi da, prozesu penalak eragin diezazkiekeen kalte eta ondorio negatiboak minimizatzeko neurriak ezarriz.

JARDUERA-EREMUAK:

Haurren eta nerabeen bizitza garatzen den eremu guztiek ingurune seguruak izan behar dute, hau da, haur eta nerabeen errespetatu behar dituzte eta haietzako babes fisiko, psikologiko eta sozialeko giroa sustatu behar du.

1.- Familia

Legeak onartzen du familiak garrantzi handia duela haurrak eta nerabeak bizi eta garatzen diren ingurune natural gisa eta, horregatik, lagundu egin behar zaio haiek hezten eta babesten betetzen duen lanean, lehen haurtzarotik arrisku-faktoreak saihesteko eta alderdi babesgarriak indartzeko. Botere publikoen zeregina izango da gurasoek seme-alabak hazteko duten erantzukizun hori ahalik eta ondoen bete dezaten zaintzea.

Ilido horretan, legeak hainbat neurri jasotzen ditu tratu ona eta gurasotasun positiboa – maitasunean, errespetuan eta elkarrizketan oinarrituta dagoena- sustatu eta, hala, familiei beren seme-alabak indarkeriarik gabeko ingurune afektibo batean hazten laguntzeko. Bestek beste, erraz eskuratzeko moduko prestakuntza-materialak zabaltzea proposatzen du, guraso edo tutoreek beren erantzukizuna egoki bete dezaten.

Laguntza-neurri horiek haurdunaldira zabaltzen dira, jaio aurreko tratu ona ere bilatzen baita. Gainera, familia-politikako neurriak ere bultzatuko dira, pobrezia eta gizarte-bazterkeria prebenitzeko eta familia eta lana berdintasunez uztartzeko.

Azkenik, familia-haustura gertatuz gero, laguntza profesionaleko zerbitzuak bultzatuko dira, haurrak behar bezala zaintzeko eta babesteko.

2.- Hezkuntza

Ikastetxeak ingurune seguruak izan daitezzen, legeak ezartzen du zuzendaritzaren eta irakasle eta profesional guztien berariazko konpromisoa eskatuko dela ikastetxea ingurune babesle bihurtzeko, bai eta kontratatzen diren langile guztien ikuskapen zorrotza egitea ere.

Era berean, derrigorrezko figura berri bat sartu da ikastetxe guztientzat: **Ongizate eta babesaren koordinatzailea**. Bere eginkizun nagusiak hauek izango dira:

- Prebentzioari, detekzio goiztiarrari eta babesari buruzko prestakuntza-planak antolatzea, ikastetxeetan lan egiten duten langileentzat zein ikasleentzat.
- Gizarte-zerbitzuen esku-hartzea behar duten kasuak koordinatzea
- Ikasleen artean ongizatea eta tratu onaren kultura sustatzea.
- Gatazkak modu baketsuan konpontzeko metodoak sustatzea.
- Zentroko langile guztiei edozein indarkeria mota prebenitzeko eta babesteko protokoloen berri ematea.

Gainera, jarduera-protokolo espezifikoak ezartzen dira eskola-jazarpenaren, ziberjazarpenaren, sexu-jazarpenaren, genero-indarkeriaren, etxeko indarkeriaren, suizidioaren eta autolesioen aurka, bai eta indarkeriaren beste edozein agerpen motaren aurka ere.

3.- Ingurune digitala

LOPIVIK arreta berezia ematen dio ingurune digitalari haurren eta nerabeen aurkako indarkeria-eremu gisa, eta beste ingurune batzuetan gertatzen dena (hezkuntzakoan, esaterako) transmititzeko bitarteko gisa.

Administrazioek hainbat jarduera egingo dituzte ingurune digitalarekin lotuta:

- Delitu-mota berriak sortzea baliabide teknologikoen bidez egindako zenbait jokabideren zigorgabetasuna saihesteko.
- Sentsibilizatorako, heziketarako eta zabalkunderako kanpainak, bai eta laguntzeko eta gaitzeko neurriak ere, haurrei eta nerabeei, familiei, hezitzaileei eta adingabeekin lan egin ohi duten beste profesional batzuei zuzenduta.
- Interneten erabilera seguru eta arduratsuari buruzko laguntza-lineako zerbitzua
- Interneten erabilera seguruaren arloan enpresen erantzukizun soziala sendotzea, eta adinaren araberako sailkapena eta eduki digitalen etiketak hobetzea.
- Ikasleak gizarte digitalerako erabat gaituko direla bermatzea eta bitarteko digitalen erabilera seguru eta egokia ikaslaraztea.
- Adinez txikien datu pertsonalak babestea

4.- Kirola, aisia eta astialdia¹

LOPIVIK ingurune seguru gisa araututako beste eremu bat da kirol eta aisia eta astialdiarena. Beraz:

¹ Legeak eremu honi buruz dioena hobeto ezagutzeko, ikus:

1.- [Aplicación de la LOPIVI en organizaciones de ocio, deporte o tiempo libre que trabajan con infancia](#)

2.- [Guía de entorno seguro en contextos de educación no formal](#)

3.- [Informe sobre las obligaciones de las entidades deportivas y de ocio en la ley orgánica 8/2021 y la figura del delegado o delegada de protección](#)

- Administrazio publikoek, bakoitzak bere eskumenen esparruan, jardura-protokoloak arautuko dituzte, eta haur eta nerabeekin kirol- edo aisialdi-jarduerak egiten dituzten erakunde guztiek aplikatu beharko dituzte protokolo horiek.
- Adinez txikiekin kirol- edo aisialdi-jarduerak egiten dituzten erakundeek honako betebeharrak izango dituzte:
 - ✓ Jardun-protokoloak aplikatzea eta, betetzen dela ziurtatzeko, kontrol-sistema bat ezartzea.
 - ✓ **Babes-ordezkararen figura izendatzea.** LOPIVIk ez du xehetasun handiagorik jasotzen figura horren erregulazioari buruz, eta autonomia-erkidego bakoitzeko araudiak garatu beharko du. Hala ere, honako hau zehazten du:
 - Haur eta nerabeek harengana joko dute beren kezkek adierazteko.
 - Ezarritako protokoloak zabalitzeaz eta betetzeaz arduratuko da.
 - Haurren edo nerabeen aurkako indarkeria-egoera bat detektatu den kasuetan, dagozkion jakinarazpenak hasiko ditu.
 - ✓ Kirolean eta aisialdian diskriminazioaren eta indarkeriaren aurkako neurriak hartzea, haurren, nerabeen, familien eta profesionalen parte-hartzearekin.
 - ✓ Haurren eta nerabeen prestakuntza eta garapen integralaren alderdi guztietan haien parte-hartze aktiboa sustatzea.
 - ✓ Kiroleko eta astialdiko erakundeen eta guraso edo tutoren arteko harremanak eta komunikazioa bultzatu eta indartzea.
 - ✓ Profesionalen prestakuntza: haur eta nerabeekin ohiko harremana dutenez, esparru horietan jarduten dutenek:
 - Prestakuntza espezializatua jaso behar dute (bereziki, desgaitasuna duten haurrei arreta emanez eta kirol inklusiboa garatuz).
 - Sexu-delitugileen erregistroaren ziurtagiri negatiboa izan behar dute.

5.- Osasuna

LOPIVIk osasunaren eremua ez du berariaz ingurune segurutzat hartzen, baina bertan bermatu egin behar dira haurrek eta nerabeek indarkeriaren aurrean dituzten eskubide guztiak.

Haurren aurkako indarkeriari aurre egiteo batzorde bat sortuko da Osasun Sistema Nazionalaren barruan, eta hark protokolo bat osatuko du. Bertan arautuko dira haurren aurkako indarkeria-kasuen susmoak edo ebizentziak jakinarazteko prozedurak, bai eta beste sektore batzuekiko lankidetzaren ere: gizarte-zerbitzuak, guardiako epaitegiak, segurtasun-indarrak, fiskaltza eta autonomia-erkidegoetako babes-erakundea. Gainera, batzordeak txosten bat egingo du urtero, indarkeriaren biktima diren haur eta nerabeei emandako osasun-arretari buruz.

Beste eremu batzuetan gertatzen den bezala, osasun-arloan ere profesionalak gaitu eta prestatu egin beharko dira haur eta nerabeen eskubideei buruz.

6.- Babes-sistema: gizarte-zerbitzuak eta babes-zentroak

LOPIVIk bete-betean eragiten dio haurren eta nerabeen babes-sistemari, eta, era berean, ondorioak ditu gizarte-zerbitzuen diseinuan, antolaketan eta funtzionamenduan.

Horregatik, autonomia-erkidegoek egokitu egin beharko dituzte haur eta nerabeen babesari eta gizarte-zerbitzuei buruz dituzten legeak, bi arlo horiek autonomia-erkidegoen eskumen eksklusiboak baitira.

7.- Segurtasun-indarrak

Autonomia-erkidegoetan eta toki-erakundeetan haurren eta nerabeen aurkako indarkeria-egoerak ikertzen eta prebenitzen espezializatutako unitateak izango dira. Protokolo espezifikoak ere izango dituzte, eta, nolana ere, haur edo nerabe batenganako indarkeria-egoera baten aurrean:

1. Haur horrentzat beharrezkoak diren behin-behineko babes-neurriak hartuko dira.
2. Biktimari behar-beharrezkoa denean bakarrik eta profesional prestatuen bidez hartuko zaio deklarazioa.
3. Ikertutako pertsonarekin kontaktua izatea galaraziko zaio.
4. Ahalegina egingo da biktima une oro bere konfiantzazko pertsona batekin egon dadin.
5. Haurrari doako laguntza juridikorako eskubidea duela jakinaraziko zaio, eta tratu ona emango zaio, hizkuntza eta formak bere adinera, heldutasun-mailara eta gainerako inguruabar pertsonaletara egokituz.

8.- Eremu penal eta judiziala

Lege honek dakarren beste berrikuntza garrantzitsuenetako bat da delitu larrienetarako preskripzio-denbora luzatu egiten duela: giza hilketaren saiakera, lesioak, ohiko tratu txarrak, askatasunaren aurkako delituak, gizakien salerosketa eta sexu-askatasunaren aurkako delituak.

Epe hori biktimek 30 urte betetzen dituenetik hasiko da kontatzen, eta ez orain arte bezala, 18 urte betetzen dituenetik. Luzapen hori aurrerapen handia da, frogatuta baitago biktimek denbora behar dutela zenbait gertakari prozesatzeko eta asimilatzeke, eta sarritan urteak igarotzen dira salatu arte.

Horrez gain, indarkeria-delitu batengatik prozedura judizial batean biktima edo lekuko gisa esku hartu behar duten 14 urtetik behar duen haurrei dagokienez, haien deklarazioak alde aurretik eraturako frogak gisa erabiliko dira, epaketan errepikatu behar ez izateko.

Gainerako esparruetan bezala, karrera judizial eta fiskalerako ere beharrezkoa izango da haurren eskubideei buruzko prestakuntza, nazioarteko araudi osoak eskatzen duena. Gainera, etorkizunean organo judizialak espezializatzea aurreikusten du, haurrei eta nerabeei buruzko gaiak sakon ezagutzen dituzten talde prestatuekin.

VI. LANKIDETZA

LOPIVIK berriaz jasotzen du administrazio publiko guztien artean lankidetzan aritzeko betebeharra, haurren aurkako indarkeriari erantzun integrala emateko. Nagusiki honetan datza:

- Informatzeko betebeharra: beste administrazioei beren eskumenak baliatuz egiten duten jarduerari buruz behar duten informazioa ematea, edo herritarrek gai bati buruzko informazioa modu integralean eskuratu ahal izateko beharrezkoa den informazioa ematea.
- Laguntzeko betebeharra: norberaren eremuan, beste administrazioek beren eskumenak eraginkortasunez gauzatzeko eska dezaketen laguntza ematea.

LOPIVIK Haurren eta Nerabeen Sektoreko Konferentzia sortu du, haurren eta nerabeen babesaren eta garapenaren arloan Estatuko Administrazio Orokorra eta autonomia-erkidegoak lankidetzan aritzeko.

Gainera, oro har, haurren eta nerabeen aurkako indarkeriaren prebentzioa, detekzio goiztiarra eta esku-hartzea errazteko, administrazio publikoek hitzarmenak sinatzea sustatuko da beren jarduera haur eta nerabeekin harremanetan garatzen duten komunikabideekin, gizarte-eragileekin, elkargo profesionalekin, erlijio-konfesioekin eta gainerako erakunde pribatuekin.

Azkenik, LOPIVIK aitortzen du haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean babesteko Gizarte Zibilak duen zeregina. Hori dela-eta, administrazioek bermatu egin behar dute haur eta nerabeei laguntzeko komunikazio-bideak denen eskura egotea (hala nola doako telefono-lineak...), bai eta gizarte zibilak horiek ezagutzea, funtsezko tresna baita haurren eta nerabeen kontrako indarkeria garaiz detektatu eta prebenitzeko.

HAURREN ETA NERABEEN KONTRAKO INDARKERIARI AURRE EGITEKO EUSKAL ESTRATEGIA

2021ean Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurka erabat babesteko Lege Organikoa onartu ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoa izan da [haurren eta nerabeen kontrako indarkeriari aurre egiteko estrategia](#) sortu duen lehena.

LOPIVI KOMUNITATEKO HEMEROTEKAN ETA DOKUTEKAN

- BIDEOA: [Cómo construir entornos protectores para la infancia](#)
- ARTIKULUA: [Una hoja de ruta para la ley de Protección a la Infancia: “Todo el camino está por andar”](#)
- ARTIKULUA: [Si atendemos a la víctima hemos llegado demasiado tarde”: Conoce la Ley de Protección a la Infancia que acaba de aprobarse](#)
- BALIABIDEAK: [Haurrak eta Nerabeak Indarkeriaren aurrean Babesteko Lege Organikoaren ezarpena errazteko](#)
 - TXOSTENA: [Infancia y violencia: Estudio participativo de la situación en España y construcción de propuestas para mejorar la atención a la infancia y adolescencia](#)
 - ERANSKINAK: [Autonomia-erkidegoen arabera](#)
 - GIDA: [Ver para proteger:](#)
- BIDE-ORRIA: [Hoja de ruta para la LOPIVI](#)
- GIDA: [Guía sobre la Ley Orgánica de protección integral a la infancia y la adolescencia frente a la violencia](#)
- GIDA: [Ley de protección integral a la infancia y la adolescencia frente a la violencia. Guía para familias](#)
- GIDA: [Aplicación de la LOPIVI en organizaciones de ocio, deporte o tiempo libre que trabajan con infancia](#)
- GIDA: [Guía de entorno seguro en contextos de educación no formal](#)
- TXOSTENA: [Informe sobre las obligaciones de las entidades deportivas y de ocio en la ley orgánica 8/2021 y la figura del delegado o delegada de protección](#)
- TXOSTENA: [Haurren eta Nerabeen kontrako indarkeriari aurre egiteko euskal estrategia](#)
 - LABURPENA: [Haurren eta Nerabeen kontrako indarkeriari aurre egiteko euskal estrategia](#)